

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko azaroak 14 · 1374 zenbakia

EIBARTARRAK SAREAN

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!
%50eko
DESKONTUA!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKI

ASEGURU ARTEKARITZA

Gure familia beti
babestuta egongo
den **garantia**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgia,
Periodontzia, Implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomaturak Aho Kirurgia,
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikari Diplomaturak.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikari Diplomaturak.
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Okklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara
Zapatueta:
10:00etatik 14:00etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubeen ikusgai



Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan



Xabier Badiola musikari eibartarrak kontzertua eskainiko du azaroaren 21ean, barixakua, 19:00etan, Coliseo antzokian. Orain dela bi urte diskoa kaleratu ondoren, folk doinuetatik abiatzen den musika intimoa ekarriko digu gitarrak lagunduta. Bideo hau eta beste asko ...eta kitto!-ren YouTubeko kanalean ikus daitezke.

www.etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Silbia

Hernandez, Irune Jaio eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Irune Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Irune Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



45 urte Jokin eta Espe gabe

Orain dela 45 urte, gaurko egunez, azaroak 14, Venezuelan, Espainiako Barne Ministeritzak ordainduta, hiru mertzenarioek Jokin Etxeberria eta Espe Arana eibartarrak hil zituzten.

Jokin eta Espe lanera eta bizitzera joanak ziren Venezuelara, eta han euskal iheslariak laguntzen jardun zuten. Laguntza hori izan zen, hain zuzen ere, Espainiako Estatuaren aparatu ilunek zigortu nahi izan zutena.

Urte hauetan guztietan ez da ikerketarik egon. Ez epaiketarik, ezta barkamen ofizialik ere. 45 urte hauetan Jokin eta Espe bigarren mailako biktimak izan dira eta, ondorioz, euren senide eta lagunak bigarren aldiz zigortuak izan dira.

Jokin eta Esperekin gertatutakoa ez da iraganeko orri itxi bat. Euskal memoria kolektiboaren parte dira eta herri honek ezin du onartu biktima batzuk ahanzturan eta zigorrak gabe uztea. Egia, justizia eta erreparazioa duintasunerako oinarriak dira.

Gaur, Jokin eta Espe gogora ekartzeaz gain, haien konpromisoa oroitu nahi dugu. Une latzetan euren etxetik urrun elkartasunera lotu ziren eta espainiar estatu sakonak garesti ordainarazi zien euren engaiamendua.

Jokinek, Espek eta Euskal Herriak egia, justizia eta erreparazioa behar dute.

EIBARKO SORTU

OKERRAK ZUZENTZEN

Aurreko asteko aldizkarian, 8. orrialdean kaleratu genuen Haurreskolen inguruko albistearen inguruan honako hau argitu nahi dugu: bigarren esaldian “Gogorarazi dute abendutik aurrera 0-2 urteko haurrentzat 41 plaza gehiago egongo direla” diogunean, Eibarko Udalak irailaren 22an argitaratutako informazioan adierazitakoari buruz ari gara, EH Bilduk ez baitu horrelako adierazpenik egin. Testua laburtzerako orduan esaldia testuingurutik kanpora laga dugu, konturatu barik. Barkatu irakurleren bat horren erruz nahastu badugu. Ulertuko duzuelakoan.

Erredakzioa

Hortik esanak



Literatura irakasleak dilema «kornelianoa» (Pierre Corneille idazletik) irakatsi zigun lizeoan: norbait behartuta dago bere buruarengan edo hurbileko norbaitengan eragin kaltegarria izango duten bi ekintzaren artean aukeratzera. Askotan, erabakiezina. Honekin lotuta, “Los domingos”-ek, udazken honetan kaleratu den filmak, dilema bat planteatzen du protagonistaren bidez: 17 urteko neska batek moja izan nahi du. Utzi ala ez? Konbentzitu ala ez? Eztabaidatu ala ez? Zinema aretotik pentsakor ateratzen ni ere, eta pelikulako sarrera bat geratu zitzaidan buruan: «Eta bizitza honek betetzen ez banau?», «Maitia, baina batzuetan bizitza ere hori da».

Yasmine Khris Maansri, Itzultzailea

European, urtean gutxi gorabehera 1.500 km lur natural eta nekazaritza-lur galtzen omen da. 600 futbol-zelai inguru asfaltatzen da. Egunero. Ogia erostera ere autoan joan nadin. Ondorioa argia da: zenbat eta kono gehiago, orduan eta oparotasun handiagoa.

Gero eta konplikatuagoa zait bizitza on bat imajinatzea kontsumo materialean eta etengabeko hazkundean oinarritu gabe. Saihesbide bat hasi dira egiten Zarautz irteeran. Saihesbideari saihesbidea jartzen asmatzea, hori bai litzatekeela “innobatzeta”. Hemen ez bada, ea asmatzen duten Brasilgo Amazonian, COP30 goi bileran.

Imanol Epelde irakaslea eta idazlea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PITTIN → Txikitxo. “Ai, nere pitxiña!”

Zopa (berakatz-zopa, arrain-zopa...) egiteko erabiltzen den ogia, mehea eta gogorra eta nahiko erre. “Okindegixan erositako pistola eruan etsen lagunei bankua atrakatzeko”.

PITTIN BAT → Apur bat, zeozer. “Pittin bat gura bazeztazu”.

1968

Sanandresetako
Danborrada
aurkezten

Gaur egun San Juan jaietan egiten bada ere, lehen sanandresetan egiten zen Danborrada, karroza eta guzti. Argazkiko emakumeak Alperrak elkarte-koek antolatutako Danborradako erregina, damak eta kantinerak dira, 1968ko azaroaren 2an Ariatza boleran egindako aurkezpenean.

FOTOPLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 14
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 16
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ASTELEHENA 17
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 18
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 19
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 20
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 21
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Maria Rosario Arrieta Agirre**. 99 urte. 2025-XI-04.
- **Nelly Goin Iriondo**. 88 urte. 2025-XI-07.
- **Juan Pedro Gonzalez Vila**. 75 urte. 2025-XI-08.
- **Maria Angeles Tadeo Garcia**. 78 urte. 2025-XI-09.
- **Elvira Garcia Garcia**. 2025-XI-11.
- **Manuel Martin Izaguirre Salegui**. 92 urte. 2025-XI-11.
- **Jose De la Prieta Aparicio**. 87 urte. 2025-XI-11.
- **Andoni Astigarraga Egaña "Mokatxo"**. 85 urte. 2025-XI-11.



Iñaki Zubizarretak eskola-jazarpenaren aurkako hitzaldia emango du Eibar BHI-n

S.H. Saskibaloi jokalaria profesional ohia den Iñaki Zubizarreta Eibar BHI ikastetxera joango da azaroaren 20an (eguna), eskola-jazarpenari buruzko hitzaldia ematera. Ikastetxetik azaldu dutenez, "jarduera hau Bizikidetza Planaren barruan kokatzen da, eta ikasturte honetarako aurreikusitako sentsibilizazio-ekintzen parte da. Bullyingaren aurkako aktibista gisa ezaguna den Iñaki Zubizarretak bere bizipen pertsonala partekatuko du. Izan

ere, gaztaroan jazarpenaren biktima izan zen bera, eta bizipen gogor honi nola aurre egin zion azalduko du". Bere testigantza bidez, familiei helarazi nahi dien mezua hau da: "jazarpenaren aurrean ez da isilk geratu behar, eta guztion erantzukizuna da egoera horiei aurre egitea". Jarduera hau Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen familiei zuzenduta dago, eta hausnarketa eta ikaskuntzarako gunea izatea nahi dute.

Bihar hasiko dira San Andres bezperako bazkarirako tiketak saltzen

S.H. San Andres bezperako herri-bazkaria antolatu du Jaixak Herriak Herrixandakok, eta joan nahi dutenentzat tiketak saltzen arituko dira: bihar (azaroak 15) eta datorren barixakuan (azaroak 21), Untzagan egongo dira, 19:00etatik aurrera. Eta, astelehenetik (azaroak 17) aurrera, Depor tabernan ere erosi ahalko dira. Tiketaren prezioa 12 eurokoa da (10 euro langabetuentzat).



Etxeko kontsumoa murrizteko tailerrak Energia Argitu programaren eskutik

S.H. Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak, EEB Gipuzkoako Eraldaketa Energetikorako Bulegoaren bidez, eta Eibarko Udalarekin elkarlanean, bi tailer antolatu ditu, *Energia Argitu* programaren baitan, etxebizitzetan energia berriztagarriak ezartzeko eta etxean energia-eraginkortasuna hobetzeko. *Energia berriztagarriak zure etxean: autokontsumo indibi-*

duala, kolektiboa eta komunitate energetikoak izenekoak azaroaren 17an izango da, 18:00etan, Portalean (ikastaro gelan). Tailerrean parte hartu nahi dutenek azaroaren 14a baino lehen eman behar dute izena. Bestalde, *Energia Argitu Kit* kanpaina abenduaren 5era arte egongo da martxan (Informazio guztia: www.gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/energia/energia-argitu).



Belaunaldien arteko moda desfilea egingo dute gaur arratsaldean Untzagan

S.H. Belaunaldien arteko moda desfilea egingo dute bihar Untzaga gizarte zentroan, 18:00etatik aurrera. Antolatzaileen berbetan, “lan eta maitasun handiarekin antolatutako ekitaldia” da. Orain dela 20 bat urte hasi ziren urtean behin, azaroaren erdialdera izaten den moda desfilea antolatzen, “adinekoei omenaldi berezia egiteko, baita adineko pertsonen gizartearen duten parte-hartzeari balioa emateko ere. Eta ez hori bakarrik, 2021az geroztik belaunaldien arteko izaerarekin antolatzen dugu

eta. Horrela, gazteek eta hurrek ere hartzen dute parte, aitzitxa-ama-mekin batera”. Aurten 22 modelok desfileatuko dute, Eibarko bost denda hauek lagatako arropa eta osagarriekin: Roca, Helmet House, Kopina, Glow Up eta Beittu. Atsedenaldietan, Nahaste Music Group gitarra eta bateria taldearen musikarekin eta Kike Biguriren bakarrikzeta-rekin gozatu ahaliko da. Aurkezlea Juanma Cano izango da. Jendea irin ibiltzeko gomendatu dute, toki barik ez geratzeko.

Euskal Selekzioa-Palestina partidua ikustera joateko bi autobus bete dituzte

S.H. Euskadi eta Palestinako selekzioek bihar Bilbon jokatu duten partidura, joateko autobusak antolatutako dituzte Armaginak 1940 eta Eibar Palestinarekin taldeek, eta izena eman duten 120 eibartarrei eskerrak eman nahi dizkiete: “Bi autobus bete ditugu Euskal Selekzioaren ofizialtasunaren zein palestinar herriarekiko elkartasunaren alde!”. Bi autobusak Ego-Gainetik irtengo direla jakinarazi nahi diote jendea (bata 12:00etan eta bestea 15:00etan). Bueltarako autobusak, berriz, Euskalduna jauregitik irtengo dira (23:30ean eta 01:30ean).





Molina de Segurako (Murtzia) Victoria de Arce Guererrok irabazi du "Sanandresak Eibarren" kartel-lehiaketa, eta hortik izango da aurtengo sanandresetako irudia. SILBIA HERNANDEZ

Biharko bakailao txapelketekin hasiko ditugu sanandresak

SILBIA HERNANDEZ

Bihartik bertatik hasita, gastronomia-lehiaketak, musika eta kirola izango dira protagonista Eibarren, San Andres egunaren aurretik ere jai-giroan murgiltzen hasteko. Egitaraua aurkezten hasi baino lehen, Eibarko Udalak antolatzen duen jai-egitaraua osatzen laguntzen duten herriko talde eta kolektiboei bere esker ona azaldu nahi izan zien alkateak.

Bihar (azaroak 15), Errebalen egingo diren XXI. Eskola arteko Bakailao Lehiaketarekin eta Bacalaos Alcorta VII. Pintxo Lehiaketarekin hasiko dira jarduerak. Sukaldari gazteak 10:00etan abiatuko dira bakailaoa prestatzen, eta Euskadiko, Nafarroako eta Iparraldeko chef onenak bilduko dituen txapelketa 12:00etatik 14:00etara izango da.

>>> Behi-aziendari eragiten dion osasun alertarengatik, aurten San Andres eguneko azokan ez da abererik egongo

Azaroaren 22an, berriz, Txistorra Egunaren XXI. edizioa egingo da, Eibarko Txirrindulari Elkarateak antolatuta. Untzaga plazan txistorra-pintxoak salduko dituzte, eta egunean zehar musika eta kirol emanaldiak egongo dira. Eta hurrengo egunean, azaroak 23, San Andres Sari Nagusia Bakailao Lehiaketaren XXXI. edizioa egingo da Untzagan.

Aste honetan aurkeztu dute aurtengo San Andres jaiak ospatzeko programa Jon Iraola alkateak, Patxi Lejardi Jaietako zinegotziak eta Jose Luis Gonzalez 'Poxpolo' Kultura teknikariak. Egitarauari begira, azoka egunean abererik ez dela egongo da nobedade nagusia, behi-aziendari eragiten dion osasun-alertarengatik Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek Euskadiko abere-azoka guztiak azaroaren 30era arte bertan behera lagatzea erabaki dutelako.

San Andres Bertso Jaialdia

Azaroaren 28an, ...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatzen duen XXIX. Bertso Jaialdia egingo da Coliseo antzokian, 20:00etan. Alaia Martin, Eneritz Artetxe, Joanes Illarregi, Sustrai Colina eta Unai Iturriaga bertsolariek hartuko dute parte, eta gai-jartzaila Mikel Arrillaga izango da. San Andres Bertso Paper lehiaketako sariak ere bertan banatuko dituzte, jaialdia hasi baino lehen. Sarrerak 8 euro balio du eta lehiatilan erosi ahalko da, egunean bertan.

San Andres bezpera musikaz eta jai-giroz betetako eguna izango da: 17:00etatik aurrera Ustekabe txarangak alaituko ditu erdiguneko kaleak, eta Zutik taldearen erromeria eta Sustraia taldearen kontzertua hartuko ditu Untzagak, besteak beste. Eta azaroaren 30ean, San Andres Egunean, 09:30ean zabalduko duten XLVI. Nekazaritza Azoka izango da eguneko protagonista, urteroko beste jarduera guztiekin batera. Baina horri buruzko informazio guztia datorren asteko aldizkarian emanango dizuegu.



Amaia Lasak eta Leire Gilek irabazi dituzte zozketatu ditugun Errigoraren otarrak

S.H. Zozketatu ditugu Errigoraren produktuak dituzten bi otarrak eta hauek izan dira irabazleak: Amaia Lasa Ajuria eta Leire Gil Palomo (argazkian, saria jasotzen). Zorionak bioi!

Bonu-txartelen kanpaina berria abian, %20ko deskontuekin erosteko

S.H. Aurten ere merkataritzako eta zerbitzuetarako bonu-txartelen kanpaina jarri du martxan Udalak, tokiko saltokiak eta herritarren kontsumoa sustatzeko asmoz. Guztira, 1.450 bonu izango dira eskuragarri, eta %20ko deskontua eskainiko dute kanpainari atxikita-ko ostalaritza eta elikadura arloko establezimenduetan. Bi formatutan eskuratu daitezke: 50 euroko bonua edo 100 euroko bonua. Martitzenean hasi ziren bono-txartelak saltzen, www.erosieibarren.eus webgunean. Kanpaina azaroaren 28an amaituko da (edo bonuak amaitzen direnean). Ekimenak 15.000 euroko laguntza jasotzen du Udalaren eskutik.



Neinor HOMES

ORAIN BAKARRIK

ARRATE HOMES • EIBAR

Erreserbatu orain zure etxebizitza eta ez ordaindu eskritura-gasturik*

*Kontsultatu oinarri legalak.



Erreal plaza ondoko etxebizitzak

Garajea | Trastelekua
Gimnasioa | Gourmet aretoa

900 11 00 22 • neinorhomes.com

“A25etik harago: indarkeria matxistaren aurkako borroka etengabea da”



Testua **IRATI ALVAREZ**

Eibarko Andretxeak, Udaleko Berdintasun Unitatearen baliabide gisa, emakumeen ahalduntzea eta tratu onak sustatzen ditu ikuspegi feministatik. Azaroaren 25a dela eta, hainbat ekintza antolatu dituzte sentsibilizazioa, erreparazioa eta parte-hartze komunitarioa bultzatzeko.

Eibarko Andretxea herri-tarrei irekitako gune feministak da, Berdintasun Unitatearen baitakoa. Bere helburua da berdintasuna, tratu onak eta emakumeen ahalduntzea sustatzea, ikuspegi kritiko, inter-sekzional eta dekolonial batetik. Azaroaren 25aren harira –Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna–, Andretxeko kideek herriko mugimendu feministarekin elkarlanean ekimen ugari prestatu dituzte, indarkeria matxistaren aurkako borroka eta oroimena herritarren egunerokoan txertatzeko asmoz.

“Azaroaren 25a egun sinbolikoa da, baina guretzat urteko egun guztietan izan behar du, indarkeria matxistaren kontrako lana eten-gabea baita”, diote Andretxetik. Egun horretan, kalean egingo diren ekintza sinbolikoen bitartez emakumeen aurkako indarkeria sistematikoa salatu eta biktimen bizipenak aitortu nahi dituzte. Ho-

rregatik, Emakumeen Mahaiaren laguntzaz bi ekintza nagusi antolatu dituzte: azaroaren 25ean bertan, 11:30ean “Matazak ehuntzen indarkeria matxisten aurka” izeneko ekintza kolektiboa egingo da, Altzoa emakume alargunen elkarteak bultzatua; eta 13:30ean herritarren elkarretaratzea egingo da “Indarkeria matxistarik ez! Aitortza, erreparazioa eta memoria” lelopean.

Ekintza askotarikoak

2025eko programazioak mota askotako ekintzak biltzen ditu. Horien artean, “Memoriaren lekuak indarkeria matxisten aurrean” erakusketa egongo da ikusgai abenduaren 31ra arte Andretxean, mundu osoko kolektibo feministen esperientziak biltzen dituen.

Era berean, azaroaren 13an Irule Abokatuen eskutik hitzaldi juridikoa egingo da. Indarkeria matxista kasuei aurre egiteko dauden defentsak eta salaketa aukerak azalduko dira bertan.



A25ari begira hainbat ekintza antolatu ditu Andretxeak urte osoan zehar. ANDRETXEA

Azaroaren 26an, berriz, Mireia Delgado Expositor ipuin-kontalariai “Hariak, jostorrazak eta zau-riak” kontaketa feminista eskainiko du.

Horrez gain, Juan San Martin Udal Liburutegiarekin elkarlanean Irakurketa Gida bat sortu dute, indarkeria matxistari buruzko liburu-ruen gomendioekin. Gida hori helduentzat eta gazteentzat baliagarria izateko prestatu dute.

Prebentzioa, komunitatea eta ardura partekatua

Andretxeko kideek adierazi dute-nez, jarduera guztiak herritar guz-
tiei zuzenduta daude. Helburua da gizartea sentsibilizatzea eta akti-
batzea, ulertaraziz indarkeria ma-
txista ez dela tratatu txar fisiko edo
psikologikoetara mugatzen: “Gi-
zarte-egitura oso bati heldu behar
zaio, eta horretarako ezinbestekoa
da sentsibilizazioa, prebentzioa,
ahalduntzea eta erreparazio ko-
lektiboa uztartzea.”

Eibarren, azken urteotan, kon-
tzentzia eta inplikazio komu-
nitarioa handitu dira. “Elkarte
feministen lana eta herritarren
parte-hartzea funtsezkoak izan
dira indarkeria matxistaren aur-
kako erantzun partekatua erai-
kitzeko”, azaldu dute. Hala ere,
erronka handiak daude oraindik:
prebentzioan sakontzea, arreta
integrala hobetzea eta ahalduntze
prozesu erreparatzaileak indar-
tzea, besteak beste.

Parte-hartze gero eta handiagoa

Andretxeko kideek herritarren
erantzun positiboa nabarmendu
dute: “Azaroaren 25aren bueltan
herriko eragile askok interesa era-
kusten dute eta kalean antolatzen
diren ekintzetan parte-hartzea na-
barmen igo da azken urteetan.”

Gauzak horrela, A25aren ingu-
ruan egiten diren adierazpen eta
ekintza guztiei urte osoan zehar
eutsi behar zaiela azpimarratu
dute.

**A25a egun sinbolikoa
da, baina guretzat
egun guztietan izan
behar du, indarkeria
matxistaren kontrako
lana etengabea baita**

**Ezinbestekoa da
sentsibilizazioa,
prebentzioa,
ahalduntzea
eta erreparazio
kolektiboa uztartzea**

Bizi-bizirik dirauen ohitura zaharra

SILBIA HERNANDEZ

Tradizioak agintzen duen moduan, astelehenean ospatu genuen eibartarrok Gaztainerre. Batzuk etxean, beste batzuk lagunartean, eta AEK euskaltegikoek, urtero bezala, kantu-kalejiran ibili eta gero Deporren egin zuten afari-meriendan, gaztaina erreak izan ziren postrea askorentzat. Jatorriz hildakoen omenezko otordu sinbolikoa izan zena, gaur egun familian edo lagunekin ospatzeko jaia da, baina Eibarren, oraindik ere, oso errotuta dagoen ohitura da.

BIDEOA



ARGAZKIAK



ALAIA MARTIN

Gai jartzailea:
**MIKEL
ARRILLAGA**
Sarrerak 8€
(leihatilan)

SAN ANDRES BERTSO JAIALDIA

ENERITZ ARTETXE

JOANES ILLARREGI

SUSTRAI COLINA

UNAI ITURRIAGA

2025.11.28 - 20:00 COLISEO (EIBAR)

Edan gabe bizi daiteke

Eibarko Alkoholiko Anonimoen elkarteak 50 urte betetzen ditu aurten. 1975etik hona, alkohola utzi eta bizitza errekuperatu nahi izan dutenentzat entzute, elkar ulertze eta laguntza gunea izan da taldea. Urtemuga ospatzeko, azaroaren 20an hitzaldi irekia egingo dute Portalean. Horrekin, egiten duten lana ezagutarazi nahi dute eta alkoholarekin arazoak dituztenak beldurrik gabe hurbiltzera animatu.

Testua **ANA AIZPURUA**

Francok hil zen urtean jaio zen Eibarko AA taldea. Historia eta oraina hobeto ezagutzeko Eibarko taldeko kide diren bi lagunekin hitz egin dugu. "Miren" eta "Aitor" izengoitiak jarri dizkiegu. Euren esperientzia gurekin partekatu nahi izan dute.

Mirenek 81 urte ditu, eta taldearen hastapenak ondo gogoratzen ditu. "31 urte nituenean oso kezkatuta nengoen nire osasunarekin, konturatzen nintzelako mendekotasun bat neukala, eta beldur handia ematen zidan horrek nora eramane nitekeen", dio.

Mirenek dionez, beti pentsatzen duzu kontrolatuko duzula, "baina ez da horrela. Zorionez, alkoholak ez zidan bat ere onik egiten: kantitate handirik edan gabe ere oso txarto sentitzen nintzen". Orduan erabaki zuen laguntza eskatzea; "Alkoholiko Anonimoetara deitu nuen, eta Hernanin edo ez dakit non hartu zidaten telefona. Esan nien alkoholarekin arazoak nitue-

la, eta hurrengo egunean gizon bat eta emakume bat etorri ziren nire etxera. Emakumea eibartarra zen. Eibarren zegoen AAKo kide bakarra, eta lau hilabete zeramatzan taldean, besterik ez. Ematen zuen ni itxaroten ari zela".

Handik aurrera, Miren buru-belarri sartu zen elkartearen: "Oso ausarta eta gaztea nintzen, dena erraza iruditzen zitzaidan. Eibarren ez zegoen talderik eta beste herri batzuetara mugitu behar ginen garai hartan. Herrian bertan talde bat sortu behar genuela pentsatu nuen". Pentsatu eta egin. Horrela, 1975ean, hiru emakumek eman zioten bizia Eibarko lehen Alkoholiko Anonimoen taldeari gure herrian.

Hartutako erabakiarekin eta egindako bidearekin oso pozik sentitzen da Miren. "Beste garai batzuk ziren", gogoratzen du. Lehen bilerak Kultun egiten zituzten; baina, espazio falta zela eta, Untzagako musika-kiosko ondoko loka-





Alkoholiko Anonimoak elkarteko kideek bilerak egiteko bi leku dituzte Eibarren: San Andres parrokiara eta Argatxan. A. AIZPURUA

letan hasi ziren elkartzen, Txaltxa Zelaiko obrak egin zirenera arte. "Orduan San Andres parrokiara joan ginen, eta han jarraitzen dugu gaur egun ere", dio.

Konpromisozko bizitza bat

Jakinda edo jakin gabe, Mirenek AA elkartearen momentu garrantzitsu batean hartu zuen parte. "AA oraindik ez zegoen ofizialki eraturik Espainia mailan, eta orduan hasi ziren erkidegoetako taldeak elkartzen. Askok bidaiatu nuen, eta gogoratzen dut Madrilera igaro nituela San Juan jai batzuk estatutuak prestatzen», dio barrezka. "Lan asko egin dut eta jende asko ezagutu dut bost hamarkada hauetan».

Denborarekin, taldeak aldaketak izan ditu: "Lehen etxera deitzen ziguten. *Hemen pertsona bat dago arazoekin* esan, eta berehala joaten ginen. Orain Gipuzkoa mailako egitura bat daukagu, deia jasotzen eta kudeatzen dituen zentral ba-

tekin. Oso antolatuta gaude. Askok hobetu da".

Baina, modernizazio guztien gainera, espiritua bera da: "Talde bat gara, eta egiten duguna partekatzea da. Ezinezkoa da imajinatzea partekatzearen indarra zein handia den».

"Badakit non dagoen infernua, han bizi izan naizelako"

Aitorrek askoz geroago ezagutu zuen taldea, egitura guztia martxan zegoenean. "Orain dela 11 urte iritsi nintzen AAra. Erabat konbentzitutako joan nintzen, banekielako arazo larria neukala", dio. Aurreko lau hilabeteak zentro batean pasatu zituen, "ezin nuelako zerotik ehunera pasa. Gero AAra etorri nintzen, eta ordutik hona hemen nago".

54 urte ditu orain, eta hamarkada bat baino gehiago darama edan gabe. "28 urterekin jada arazoak nituen. Jende askok ikusi nau oso gaizki. Oso zaila da, inguruan alkohola duzulako beti, baina 11 urte

>>> "Badakit non dagoen infernua, han bizi izan naizelako, eta badakit zein den bide ona bizitza osasuntsu bat eramateko"

daramatzat garbi. Tabernetan ez naiz sartzen, mendira asko joaten naiz eta oso gustura nago dudana bizitzarekin. Badakit non dagoen infernua, han bizi izan naizelako, eta badakit zein den bide ona bizitza osasuntsu bat eramateko", esan digu.

Zailtasun guztien gainera, Aitorrek argi du: "Garrantzitsuena partekatzea da. Zure zalantzak, istorioak, beldurrak eta arazoak partekatzea. Taldeari esker lortu dut nik hori".



50 urteko ibilbideak merezi du ospatzea. Hori dela eta, solasaldi irekia egingo dute azaroaren 20an Portalean.

>>> "Une honetan jende berri asko dago elkartean, gazteak gainera. 28 urte inguru ditu gazteenak"


Talde irekia, askotarikoa eta hurbila Eibarko taldeetan adin eta egoera guztietako jendea biltzen da. "Gizonak, emakumeak, gazteak, helduak... jatorri eta egoera anitzekoak. Asko familiei esker helitzen dira bertara, etxean nazkatuta daudelako jada", dio Aitorrek. Hortik sortu zen baita senide eta lagunentzako elkartea ere, Al-Anon, modu independentean funtzionatzen duena, baina antzeko helburu batekin: laguntza, elkar ulertzea eta elkarbizitzarako tresnak eskaintzea.

Mirenek dio oso argi eduki behar dela eta edan gabe ere bizi daitekeela. Urratsa eman zuen, bere seme-alabak, orduan txikiak zirenak, ez zitezen konturatu. "Zaila da", dio. "Badago jendea berriro erortzen dena. Niri, AA programak asko eman dit garapen pertsonalean, eta han egoteak nire bizitzari zentzua ematen dio". Oso ondo pasatzen dutela diote. "Barre pila bat egiten dugu, asko maite dugu elkar eta eskertuta gaude hain ondo egoteagatik".

Bi talde daude Eibarren: *Urko* 75 izenekoa San Andres parrokiako lokaletan elkartzen da asteen bi aldiz, eta *Argatxa* taldea izen bereko kalean. Batez beste 18 lagun inguru izaten dira talde bakoitzean, nahiz eta kopurua aldatzen joan sasoiaren arabera. Une honetan jende berri asko dagoela diote, gazteak gainera; gazteenak 28 urte inguru ditu.

AAko kide izateko baldintza bakarra edateari uzteko nahia da. Helburu nagusia da edan gabe jarraitzea eta beste alkoholikoei hori lortzen laguntzea.

"Gure taldeak leku seguruak dira: inorke ez zaitu epaituko, ulertua sentituko zara eta beste pertsona batzuekin partekatuko duzu zure arazoa. Elkarri babesa ematen diogu, eta sortzen dugun lotura horrek bakardadearen sentsazioetik urruntzen laguntzen du". Ateak zabalik dituztela gogoratu digute eta herri-tar guztiak gonbidatu nahi dituzte azaroaren 20an, 19:00etan, Portalean egingo den solasaldira. 50 urteko ibilbideak merezi du behar bezala ospatzea.



“Errobera artean” erakusketak argi lagatzen duenez, bizikletak eta mugimendua inspirazio iturri izan dira garai guztietako artistentzat.. SILBIA HERNANDEZ

Eskaneatu QR kodea
BIDEOA ikusteko



Bizikletak artistentzat inspirazio-iturri ere badira

SILBIA HERNANDEZ

Aurreko astean zabaldu zuten *Errobera artean* aldi baterako erakusketa Eibarko Armagintza-ren Museoan. Erakusketa horren bitartez bizikletek eta Eibarko industriak arte-sorkuntza garaikideari nola eragin dioten erakutsi nahi dute antolatzaileek eta, asmo horrekin, bizikleta inspirazio-iturri izan duten hainbat artistaren sorkuntza-lanak ipini dituzte ikusgai. Otsailaren 1era arte egongo da ikustera joateko aukera, Museoaren ohiko ordu-

tegian: eguaztenetik zapatura, 16:00etatik 20:00etara; eta domeketan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Marina Barrena Museoko arduradunaren berbetan, “Eibarko Txirindulari Elkartek eta GAC enpresak mendeurrena beteko dute datorren urtean eta, zabaldu berri den erakusketarekin hasiko dira horren inguruko ospakizunak”.

Bestalde, eguaztenean (azaroak 19) Iñaki Uriarte arkitektuak *La bicicleta, una máquina movil, veloz y bella* izenburuko hitzaldia

emango du, gazteleraz, 19:00etan Portaleko areto nagusian.

Arkitektua izateaz gain, Iñaki Uriarte Palacios Ondare Arkitektoniko, Industrial eta Portukoaren ikertzailea, dokumentalista eta artikulagile gisa espezializatu da gai urbano eta arkitektonikoetan. 1994az geroztik, ahalegin berezia egiten dihardu Bilboko itsasadarren industria, arkitektura eta paisaia-ondarea berreskuratzeko. Era berean, Euskal Herriko egitura industrialei buruzko DOCOMOMO (*Documentation and Conservation of buildings, sites and neighbourhoods of the Modern Movement* – *Mugimendu Modernoko Eraikin, Gune eta Auzuneen Dokumentazio eta Kontserbazioaren Nazioarteko Batzordea*) erakundearen liburua prestatzen ere aritu da lanean.



LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera



**Zure publizitatea
herriko aldizkarian**
688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

"EUSKARAZ EGITEA ERABAKI

ENEKO RAMON

23 urteko eibartarra TikToken ari da politika-

ren inguruko edukia sortzen,

euskaraz eta tonu hurbilean,

gazteak eztabaida publi-

kotik aldentzen ari direla

ikusita. Sare sozialen po-

tentzial politikoa al-

darrikatzen du, eta

euskarazko pre-

sentziaren premia

azpimarratu.

BIDEOA



Testua **IRATI ALVAREZ**
Bideoa **YANIRE RODRIGUEZ**

Madriren Politika Zientziak eta Bartzelonan Komunikazio Politikoaren masterra ikasi ostean, Eneko Ramon (23) sare sozialen bidez politikara gerturatze lanean dabil. TikToken ari da gaur-gaurkoz edukiak sortzen, euskaraz eta tonu hurbilean, gazteak diskurtso politikotik urruntzen ari direla ikusita.

Lehenik eta behin, aurkeztu zure burua.

Eneko Ramon naiz eta 23 urte ditut. Madriren Politika Zientziak ikasi ondoren, Komunikazio Politikoari lotutako masterra egin nuen Bartzelonan.

Nola erabaki zenuen eduki-sortzailea izatea?

Masterrean nembilela konturatu nintzen sare so-

zioletan Euskal Herrian hutsune handia zegoela, are gehiago euskarazko edukian eta Komunikazio Politikoarekin lotuta. Hutsune hori betetzeko prest ikusi nuen neure burua.

Zein sare sozialetan sortzen duzu edukia?

Momentuz TikToken ari naiz. Etorkizunean Instagramera ere salto egitea gustatuko litzaidake.

Zein da zure helburua?

Bi helburu nagusi ditut. Alde batetik, nire asmoa herritarrak politikara hurbiltzea da. Uste dut gaur egun gizartea oro har, eta bereziki gazteak, politikatik oso urrun daudela. Bestetik, arlo profesionalean, nire burua eta marka propioa eraikitzea. Gazteok denbora asko pasatzen dugu TikToken, eta uste dut komunikatzeko tresna oso egokia dela.

GANNA IRITSI BEHAR DUGU "EUSKA-

TIKOA DA: SAREETAN GAZTEEN

POLITIKOA DA: SAREETAN GAZ

Erreferenterik baduzu?

Euskal Herrian ez. Espainiako mailan, Inés Hernand komunikatzaile oso ona dela esango nuke.

Nola eragiten dute sare sozialek politikagintzan?

Sare sozialak tresna bat dira edukiak eta ideiak partekatzeko. Orokorrean, gizarteak badu begirada negatibo bat haien inguruan, uste baita gazteek gaizki erabiltzen dituztela. Hala ere, nire ustez, ongi baliatuz gero, edukiak lantzeko tresna

eraginkorrak dira. Euskal Herrian eta Espainian, eskuin muturrak oso ondo erabiltzen ditu sareak bere ideiak zabaltzeko. Hori dela eta, beste alderdiek ere sarean indar handiagoa jarri beharko luketela uste dut, nolabait kontra egiteko.

Zuretzat kamera aurrean egotea ere erabaki politikoa da?

Bai. Eta ez hori bakarrik: euskaraz egitea ere erabaki politikoa da, behar bat dagoelako. Gaur egun, dena da politikoa neurri batean.

Zer erantzun jaso dituzu jarraitzaile edo gertukoengandik?

Askok esan didate bideoak gazteleraz egin behariko nituzkeela, publikoa zabalagoa da eta aukerak handiagoak izan litezkeelako. Baina uste dut euskarazko edukiak sortzea beharrezkoa dela. Bestetik, batzuek esan didate edukiak modu freskoagoan egin ditzakedala. Egia da arrazoi puntu bat dutela, baina politika gaiak modu arin batean azaltzea ez da beti erraza. Ikasten ari naiz.

Epe luzeko proiektua da, beraz.

Bai. Martxoan hasi nintzen eta ahal dudan neurrian bideoak igotzen jarraitzen dut. Beste batzuk ere baditut prest.

Komunikazioari dagokionez, lan handia dago egiteko gure herrian?

Eibar komunikatiboki potentzial handiko herria dela iruditzen zait. Gauza asko gertatzen dira, baina ez dira modu eraginkorrean komunikatzen. Helduek badakite herrian zer gertatzen den, baina gazte askok ez. Adibidez, duela gutxi eolikoen proiektu bati buruz jakin nuen, baina beste askok ez dakite. Uste dut horrelako informazioa hobeto zabaldu behar dela. Politikariak horretan lanean ari direla uste dut, baina oraindik bide luzea dute egiteko.

Zer esango zenieke Eibarko politikari edo alderdiei?

Jendea entzuteko esango nieke. Askotan pentsatzen dugu gauzak egin behar direla "hala delako". Baina gauzak egin aurretik herritarren iritzia entzun behar da.

Eta herritarrei?

Gure politikariak guk bozkatu ditugula, eta, beraz, haiei gauzak eskatu behar dizkiegula.



TEENGANA IRITSI BEHAR DUGU” “EU

SKARAZ EGITEA ERABAKI POLI



Blues Hotsak entzungo dira datorren astean Soraluzen

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Hilaren 16tik 23ra, Blues Hotsak jaialdiaren zazpigarren edizioa ospatuko da Soraluzen. Izenak dioen bezala, blues musika izango da nagusi jaialdian, baina musika beltzak ere bere tokia edukiko du eta, musika emanaldiez gain, zine emanaldiak, literatura solasaldiak, ikastaroak eta kontzertu gastronomikoak egingo dira, besteak beste.

Programazioaren aniztasuna da Blues Hotsak jaialdiaren arrakastaren gakoetako bat. Aipatu bezala, musikaz harago doan jaialdia da eta domekan argi eta garbi geratuko da hori, 09:00etan, trikuharrien bisita egingo baitute, Karakaten, Dolmenen ibilbidean. Bisita egiteko, www.blueshotsak.eus helbidean izena eman beharko da.

Horren ondoren, 13:00etan, Erromintxelak taldeak jaialdiko lehen kontzertua eskainiko du Soraluzeko plazan. Taldea 2021ean sortu zuten Arrasaten, swing musikaren tradizioa eta euskarazko poesia uztartze-ko asmoz. Emanaldia egin bitartean bikote bat izango da dantzan eta swingeatzera animatzen diren guztiak daude gonbidatuta.

Musikari handien txanda iritsi aurretik, astean zehar bi saio egongo dira. Hilaren 17an, Oihane Amantegi idazlearekin solasaldia egingo da 'Ibaiertzeko ipuina' liburua inguruan, 19:30ean, Herriko Antzokian. Eta 19an, arrakasta bilatzen duen jazz bateria-jole gazte baten istorioa kontatzen duen 'Whiplash' pelikula emango dute toki eta ordu berean.

Hilaren 21ean, 17:00etan, Herriko Antzokian, gazteentzako harmonika ikastaroa eskainiko du Joan Pau Cumellasek. Eta horren ondoren, 20:00etan, Ina Forsman finlandiarraren kontzertua egongo da toki berean. "Ina Forsman musika onak maite ohi zuen guztia da: benetakoa, gordina, bihotzarekin idatzia eta arimatik aterea", diote antolatzaileek.

Anari eta Carmen Paris

Hilaren 22ko egitaraua oso indartsu dator. Hasteko, 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, Joan Pau Cumellasek harmonika ikastaroa eskainiko du berriz, baina kasu honetan nagusientzat.

Eta tartean, 12:00etan, Soraluzeko Musika Eskolako konboak bluesaren inguruan osatutako kontzertua emango du

Horien ondoren, 13:30ean, Zubi Nagusian, Mississippi Queen & The Wet Dogs taldeak joko du. “2015ean sortutako Bilboko talde gazte honek publikoa konkistatzeko osagai guztiak ditu: musika beltzaren adar asko biltzen dituen errepertorioa, emakumezko ahots aparta aurrean eta hunkitu eta arrastaka eramaten gaituen oholza gaineko indarra.”, diote Blues Hotsak-ekoek.

17:00etan, Herriko Antzokian, Anari. Ia dena esanda dago Azkoitiko musikariaren inguruan, beraz, bertaratu eta gozatu. Aipatzekoa da musikariaren artean Mariano Hurtado izango dela pianoan eta organoan.

Anariren ostean, 20:00etan, Carmen Paris izango dugu. “Aragoiko jota berri eta folklorea eraberritu ditu maisuki nahastuz Mediterraneo, Afrika eta Amerikako erritmo eta melodiekin letra, pianoa eta konposizioa menderatuz”, diote antolatzaileek.

Eta eguna amaitzeko, 22:30ean, Gaztetxean, Iker Piris & Dual Electras taldeak kontzertua eta jam session-a eskainiko du.

Musika kalean

Domekan, musika kalera irtengo da hainbat kontzertu-ekin. 12:00etan, Gabolats kalean, harmonika ikastaroa ematen ibiliko den Joan Pau Cumellasek eta Tofol Martinezek (gitarra) kontzertua emango dute. Estatu mailako Blues Challengeko taldearekin irabazle eta Kroaziako European 2025 jaialdian parte-hartzaile, disko ugari grabatu dituzte eta Europako jaialdi nagusietan aritu dira. 13:00etan, Santa Ana kalean, Susan Santos abeslari eta gitarra-jole ezkertiarrek gidatzen duen power hirukoteak bere musika estilo originala eskainiko du aire librean. Eta 14:00etan, Plaza Zaharrean, Maria Carbonell Blues Mood talde berriak joko du, blues, R&B eta jazz estiloak fusionatuz.

Jaialdiari amaiera emanez, Quinn Devaux izango dugu, 18:00etan, Herriko Antzokian. Chicagoko musikariak jaio zenetik jaso dituen doinuak ekarriko ditu Debabarrenera.

Herriko Antzokiko emanaldietarako sarrerak Soraluzeko gozotegian eta www.entradium.com webgunean erosi ahal izango dira, 15 euroan.



Musika izango da jaialdiaren ardatza, baina beste motatako hainbat ekintza egingo dituzte astean zehar



Anari da aurtengo Blues Hotsak jaialdiaren karteletako ikurretakoa, baina talentu handiko beste artista batzuk ere egongo dira.



Deporrekoek Arama eta Orendain lotu zituzten oinez

EKHI BELAR

Zapatuan, azaroak 8, Arama eta Orendain arteko ibilbidea egin zuten Eibarko Klub Deportiboko mendizaleek. Antxon Narbaizaren ahotik kontatuta, horrela pasatu zuten eguna: “Klub Deportiboko 17 lagun ausart eta adoretu Arama, Goierriko herri politean, ekin diogu ibiltzeari. Iragarri bezala, euria izan dugu ia egun guztian zehar, ez baina zaparrada handitan, gure jomugara iristen ari ginela salbu. Haizerik gabe erortzen zen euria baina gure euritako eta babesekin ederki moldatu gara. Aramatik Altzagamendira igo gara (535 m.), igoera atseginean. Bertatik beherantz jo dugu baserri eta goilautada ederrak zeharkatuz. Baliarrain herri txukuna

zeharkatu dugu ondoren. Beheranzkoan Ibiur urtegi xumearen bazterretik igaro gara, azken igoera burutzeko, hain zuzen, Orendain herrixkaraino. Udaletxe dotorea baita frontoi dotorea dauka herriak. Herritik bertatik ikuspegia handia dago: aurrez aurre eta Nafarroako muga gailentzen dira, besteak beste. 16 kilometrotik gora, eta 610 metroko desnibela izan dugu. Txangoari amaiera emateko, Oskar Handikoetxeak beste bi boluntario lagun, bazkari oparoa prestatu digute Eltxoa elkartearen. Umorez blai amaitu dugu zeharkaldia”.

Hurrengo mendi irteera Herri Txikiak multzoarena izango da, azaroaren 22an: Alegia - Iruntxur (743 m) - Bidania Goian.



Gilek eta Amillategik txapela jantzi dute

E.B. Liher Gil eta Aratz Amillategi kadeteek Gipuzkoako 2. Mailako Eskuz Binakako txapela jantzi dute. Eibarko Klub Deportiboko pilotariek domekan, azaroaren 9an, jokatu zuten finala, Oiartzunen, Hernaniko bikotearen kontra, eta ez zuten aukera alferrik galdu, txapelketa ikusgarriari ginga jarritz.

Asteburuko
karteldegia





Ama Dablameko gailurra iritsi du Fernando Errekalde mendizaleak

E.B. Ama Dablam munduko mendi ederrenetarikoa dela esan ohi dute. Ez dago altuenen artean, 6.812 metro ditu, baina Himalaietako ikur bat da eta erronka handia izaten da tontorrera iristea. Bertan izan dira Fernando Errekalde eta Unai Eraso eibartarrak, eta zapatuan, azaroak 8, gailurra iritsi zuen Errekaldek.

Ama Dablamera jo aurretik, Island Peak (Imja Tse, 6.189) mendira igo ziren aklimatazioa egiteko. Mendi ikusgarria hori ere, batez ere tontorretik ikusten dena kontuan har-

tuta: Lhotse (munduko laugarren mendirik altuena), Makalu (bosgarren altuena) eta Ama Dablam.

Egokitzenaren ondoren, Ama Dablameko tontorrera begira jarri zen espedizioa. Azaroaren 8an zuten gailurrera iristeko asmoa, baina azken egunetan ia lorik egin gabe egon ostean, "jota", Unai Erasok kanpamendu nagusira itzultzea erabaki zuen. Ostera, Fernando Errekaldek, Andreu Torregrosa and Pemba Tenzing Sherparekin, tontorrera iristeko saiakera egin zuen eta baita lortu ere.

Raul Fernandez xakelaria Gipuzkoako txapeldun

E.B. Joan den zapatuan, Elgoibar-ko zonaldeko Gipuzkoako Xakeko Hirugarren Mailako txapelketa jokatzen Elgoibarren bertan. Eibar-ko Klub Deportiboko xakelarien artean erabaki behar zen txapela nork jantziko zuen eta, azkenean, Raul Fernandez Gallegok eraman zuen, lehia erabakigarrian Yerai semearen aurka berdindu ondoren.

Txapelketaren bigarren postuan Mikel Saenz Gil eibartarrak amaitu zuen, azken txandan Unax Andreu Varela garaitu ondoren, eta Yerai Fernandez Juaristik amaitu zuen hirugarren postuan.

Eibarko xakelariak maila bikaina erakutsi zuten txapelketan zehar eta urtarrelean hasiko den taldekako txapelketarako sasoi betean daudela erakutsi dute.



Casinoko billar taldeak liderra jasoko du

E.B. Lehen bi jardunaldietan Santanderren eta Pontevedraren aurka galdu ondoren, hiru bandako billarreko Bigarren Mailan jokatzen duen Casino Artista Eibarres-ek Alcobendasi irabazi zion azken jardunaldian. Garaipen horri jarraipena eman nahi diote eibartarrak bihar, azaroaren 15ean, baina arerio gogorra izango dute aurrean: Covadonga talde asturiarra, sailkapeneko liderra.

Casinokoen aldetik Javi Gonzalez, Sergio Boullosa, Luismi Perez eta Ricardo Ereña arituko dira eta jardunaldia ikusteko sarrera librea izango da, aforoa bete arte. Covadonga zein Casino Artista Eibarres Bigarren Mailako Cmultzoan daude kokatuta Club Txapela, Magerit, Alcobendas eta Regatas taldeekin batera, "den-denak ibilbide luzeko taldeak", Casinokoen berbetan.



ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - Espanyol (etzi, 18:30)

Gizonezkoen 2. Maila

Sporting - EIBAR (etzi, 16:15)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

Atletico Madrid C - EIBAR B (bihar, 16:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Logroñes - EIBAR B (etzi, 17:00)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF

Arratia - EIBAR C (bihar, 15:45)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Touring - EIBAR C (bihar, 16:30)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

Anaitasuna - URKI (bihar, 16:30)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

EIBARTARRAK - Segura (bihar, 18:30)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

Osasuna - EIBAR (etzi, 12:00)

Jubenilen Nazional Liga (gi)

Zarautz - EIBAR B (bihar, 16:00)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

C. Durango - URKI (bihar, 18:00)

FUTBOL-ZALETUA

- L. Rueda - Garajes Garcia (bihar, 09:00)
- Bergara Pn. - Malape (bihar, 10:30)
- Marem - Baserri (etzi, 09:00)
- Kalaka Bs. As. - Xania (etzi, 10:30)
- Atsedena: Adahi Etxegi

ESKUBALOIA

Zilarrezko Maila (em)

Kukullaga - E. ESKUBALOIA (bihar, 20:00)

1. Maila Nazionala (gi)

E. ESKUBALOIA - Amenabar (bihar, 19:00)

Seniorren Euskadiko Liga (gi)

Donibane - E. ESKUBALOIA B (bihar, 13:00)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)

Ereintza - EIBAR ESKUBALOIA B (bihar, 9:45)

SASKIBALOIA

Gipuzkoako 1. Maila (gi)

D. Dolphins - ART. JUANTXO (bihar, 18:00)

Gipuzkoako 2. Maila (em)

EIBAR SASKI. - Aloña Mendi (bihar, 16:30)

WATERPOLOA

2. Maila Nazionala

Tres Cantos - URBAT (etzi, 18:00)

FRRUGBIA

Ohorezko B Maila

EIBAR RT - Barça (etzi, 11:00)

Albiste gehiago



Hiru eibartar igo ziren podiumera Lauzirikako hiru-txirlo tiraldian

E.B. Euskal Herriko 35. Hiru Txirlo Txapelketako laugarren tiraldia egin zen asteburuan, Markina-Xemeineko Lauzirika bolatokia. Bertan, eibartarrak bikain aritu ziren, eta hiru igo ziren podiumera: Elgetarekin jokatzeko duen Bittor Astigarraga eta Asola Berriko Gannix Rodriguez sei txirlorekin, eta

Asola Berriko Garikotz Rodriguez bost txirlorekin (4. izan zen 3. arekin berdinduta). Guztira, 69 lagunek hartu zuten parte.

Sailkapen orokorrari dagokionez, Jose Antonio Nuñez (San Andres) dago lehen postuan, bigarren Goizon Uranga (Lastur) da eta hirugarren Angel Ibarluzea (San Migel A).

Bihar da Asier Cuevas lasterketa

E.B. Bihar egingo da Asier Cuevas Herri Lasterketaren XII. edizioa. Lehenik, 17:00etan, Eskola Kirolean parte hartzen duten umeek Asier Cuevas Txikia egingo dute. Gero, 18:00etan, lasterketa nagusia egingo da, ohiko 7,5 kilometro dituen ohiko ibilbideari jarraituz (hiru buelta emango dizkiote zirkuitu berdinari). Parte hartzeko www.sailkapenak.eus helbidean edo Deporren eman daiteke izena.



MAHAI-INGURUA

BELAUNALDI BERRI EUSKALDUNAK ETA TEKNOLOGIA

LOREA ARGARATE ZUBIA (TEKNOLOGOA)
LEIRE LISÓN NICUESA (BADALABEKO IKERTZAILEA)
LANDER ARRETxea (HIRU DAMATXOKO KIDEA)

BIDERATZAILEA: AINHOA LATATU NUÑEZ
(UEUREN GOI IKASTEGIKO ZUZENDARIA)

EIBAR, MARKESKOA JAUREGIA
AZAROAK 18, 18:30

UEU.EUS

XABIER BADIOLA • Musikaria

“Gitarra-jolea naiz lehenik eta, gero, abestu egiten dut”

Gitarrarekin etorri zaigu elkarrizketara eta hori berori izango du lagun bakarra Coliseoko eszenatoki gainean. Xabier Badiolak ez du ezer gehiago behar, bere gitarratik ateratzen diren doinuek espazio guztia inguratzen dutelako. Azaroaren 21ean, 19:00etan, zuzenean entzuteko aukera izango dugu eta sarrerak salgai daude dagoeneko, 10 euroan (7 euro Coliseoaren Laguna txartela dutenentzat).

Testua eta argazkiak
EKHI BELAR ERRASTI
Bideoa
YANIRE SAGREDO

Orain dela bi urte inguru bere izena daraman diskoa ateratu zuen Xabier Badiolak. Publikoaren eta kritikaren harrera ona izan zuen lanak eta, bere erritmoan, bidea egin du eszena musikalean. Barrenetik egindako musika da, merkatuak exigitzen duenari jaramon egin barik, eta agian horrek egiten du berezi. Ez zenukete zuzenean entzuteko aukera galdu behar.

Ezinbesteko galdera: Nola zaude Coliseoko kontzertuaren aurrean?

Nahiko ondo. Udaran krisialdi txiki bat eduki nuen eta pentsatzen nuen ez nintzela helduko Coliseon jotzera, baina kontzertu-sorta bat irten da progresiboki eta ondo heltzen naiz. Coliseon jo izan dut, baina taldean, eta hau ezberdina da.

Ez da areto txikia, zure jaioterrian... Horrek baldintzatzen zaitu?

Urduriago jartzen naiz taberna txikietan jotzen dudanean, non telebistan futbol partidua dagoen, jendea tragoarekin... Gitarra akustikoa ezin da gitarra elektriko bezala amplifikatu. Coliseon behintzat jendea jarrita dago eta, barixaku arratsaldea izanda, nekatuta ziurrenik. Beraz, euren atentzioa atxilotu dezaket.

Zuzenekoak proposamena mikrofonoa, gitarra eta zu egotea da, beste barik?

Bai. Pozik nago, zeren eta Ander Barriusok esan dit bera egongo dela teknikari lanetan. Mundu idealean gure Walter

(Tuzzeo) maitea izango litzateke teknikaria, baina tira. Anderrek gustu ona dauka, beraz, esku honetan nago.

Azken sasoiaren kontzertuak eman dituzu. Zelan sentitu zara?

Normalean, udan geldialdia izaten dut. Beste musika proposamen batzuek udan gora egiten dute, jaietako kontzertuen-gatik eta abar, baina nire kasuan uda hibernaziorako sasoi izaten da. Ez dakit patuaren kontua den, baina beti kointziditzen dit bizi-katastrofe batekin, gero idazteko ondo etortzen diren horietakoak. Azken kontzertuak nahiko ondo egon dira eta erritmoa hartzen noa pixkanaka.

Diskoa orain dela bi urte ateratu zenuen eta izan du oihartzuna. Nola ikusi duzu egin duen bidea?

Pretentsiorik gabe egin zen zer bait izan zen, etxean grabatu nuelako pare bat mikrofonorekin, eta denboran ikusi dut nolako ‘makarrada’ izan zen, baina onera diot. Oso harrera ona eduki du, ez nuen espero. Heldu behar zitzaion jendea heldu zaio. Atera behar genituen 200 kopiak saldu egin ziren eta abendurako beste tirada bat aterako dugu. Proposamenak ere iritsi dira. Adibidez, abenduan Rennesen (Bretainia) joko dut Trans Musicales jaialdian. Diskoaren lehen urtea borroka izan zen eta bigarrena, borroka ere bai, baina ez da aldapan gora. Hau da, ez naiz ibili behar hainbeste inoren atzetik, gauzak naturalki ematen ari dira.





Iraganeko doinuak gaurkotasunetik jotzen ditu Xabier Badiolak gitarrekin. EKHI BELAR

“Diskoak bi urte bete dituen honetan, ez naiz ibili behar hainbeste inoren atzetik, gauzak naturalki ematen ari dira”

Gaztelupeko Hotsak zigilu barruan zaudete. Modu berezian zaintzen du musika diskoetxe horrek?

Bai! Polita izan da eurekin sortu den harremana. Jon Gurrutxagaren hitzaldi batean ezagutu nuen Xarra eta ‘frikadei’ buruz berbetan hasi ginen. Diskoa grabatu nuela esan nion eta ez nekiela norekin atera, ez zidatela kasurik egiten-eta. Bidaltzeko esan zidan eta gustatu zitzaion. Orduan, nire mezenas moduko bat bihurtu zen. Demaseko mimoarekin tratatzen naute eta zenbait gauza iritsi zaizkit eurek eskua sartu dutelako.

Txikitatik egin duzu musika. Zure ahotsa lortu duzula esango zenuke?

Hori bititza bezala da, ez zarela inora heltzen. Hau da, denbora guztian zaudete engabeko trantsizioan. Batetik, azterketa sozioekonomiko bat egin daiteke azaltzeko zergatik orain talde gutxiago dagoen eta bakarlariek gora egin dugun.

“Polita da ikustea ez gaudela bakarrik eta, bakarlariak izan arren, badagoela komunitate bat musika soila egiten duena”

Era berean, gitarra-jole moduan mugatuta ikusten dut neure burua, mundu guztiak jotzen duelako gitarra. Gitarrekin zaila da inork egiten ez duen zer-bait egitea. Gitarra akustikoaren kasuan, jendeak jotzen du, baina askotan gehiago da laguntzaile moduan. Ni, oster, gitarra-jolea naiz lehenik eta behin eta, gero, abestu egiten dut. Orduan, buelta ematen saiatzen naiz, gauzak ezberdin egiten. Nire tokia bilatu dut eta, bitxia da, hor sartzerakoan ezagutu dudalako bide horretatik doan jendea. Polita da ikustea ez gaudela bakarrik eta, bakarlariak izan arren, badagoela komunitate bat musika soila eta erdi-pertsonala egiten duena.



Santa Zezilia serenatan abesteko kantu-paperak

S.H. Eibarko Musika Banda Santa Zezilia egunerako prestatzen ari da eta, aurten ere kantu-paperak banatuko dituzte, bertaratzen diren guztiek serenatan abestu ahal izateko. Serenata azaroaren 22tik 23rako gauean egingo da, eta kantu-paperak toki hauetan hartu daitezke: Trinkete eta Ongi Etorri tabernetan, Coliseoan eta Portalean. Bestela ere, kantu-papera pdf formatuan zabalduko dute, “norbaitek telefono mugikorrean irakurrita abestu nahi baldin badu”. Betiko kantuekin batera, “Eibarko kutsua duten kantuak” sartzen ari dira pixkanaka, eta aurten ‘Eibar tiene su entrada’ abestia estreinatuko dute serenatan. Santa Zeziliako kontzertua, bestalde, azaroaren 23an egingo da, 12:30ean, Coliseo antzokian.



Kalejira berezia Ustekaberen 25. urteurrena ospatzeko

S.H. Bihar zapatua ospatuko du Ustekabe txarangak bere sorreraren 25. urteurrena, eta horretarako plan berezia prestatu dute: 18:00etan abiatuko dira kalejira, Bittor Sarasketatik erdialdera joateko. Bihar, baina, urte hauetan Ustekaben aritu diren kide guztiak, 55 lagun inguru ibiliko dira elkarrekin, gaueraino jotzen. Gainera, irudi berria estreinatuko dute.



Txapak eta kandelak egiteko tailer bana ...eta kitto!-n

S.H. Abendua sormenez beteta dator ...eta kitto! Euskara Elkartera, Illunabarrian programaren eskutik, “irudi-mena pizteko eta arratsalde desberdin bat pasatzeko bi tailer zoragarri” antolatu dituzte eta. Abenduaren 9an (martitzena), txapa tailerra egingo da, Arima Cool Tour-en eskutik. Eta abenduaren 11n (egunea) kandelat tailerra emango du Alluitz Naturak. Bi tailerrak 18:30etik 20:00etara izango dira eta parte hartu ahal izateko 8 urtetik gora izan behar da (haurrak heldu batek lagunduta etorri beharko dira). Izen-ematea gaur (azaroak 14) zabaldu dute, eta www.etakitto.eus webgunearen bidez, telefonoz deituta (943200918) edo bertara joanda (Urkizu, 11 solairuartera) egin daiteke. Hori bai, izena lehenbailehen ematea komeni da, “plazak mugatuak dira eta”. Prezioa 10 eurokoa da pertsonako (7 euro bazkideentzat).



Deus Ez taldearen disko berria kalean dago

S.H. Sei urteko etena eta gero, indarberrituta dator Deus Ez musika taldea. Disko berria gaur (azaroak 14) kaleratuko da, eta bi abestiren bideoklipak ere ikusgai daude: *Sare* eta *Zaunka!*. Eric Deza, Alex Etxeberria eta Koldo Sagarzazu dira taldekideak, eta bi lan argitaratu dituzte aurretik: *Deus Ez* (2017) eta *Sherpak* (2019).



“Belaunaldi berri euskaldunak eta teknologia” mahaingurua

S.H. *Belaunaldi berri euskaldunak eta teknologia* izenburuko mahai-ingurua egingo da martitzenean (azaroak 18), 18:00etatik aurrera Markeskua jauregian. UEUk Eibarko Udalaren eta Akebairen babesarekin antolatutako mahai-ingurua da, eta parte-hartzaileak hauek dira: Lorea Argarate Zubia (Teknologoa), Leire Lison Nicuesa (BadaLabeko ikertzailea) eta Lander Arretxea Bereziartua (Hiru Damatxo). Bideratzailea, berriz, Ainhoa Latatu Nuñez, UEUren GOI Ikastegi-ko zuzendaria izango da. Bertaratzeko asmoa dutenei aurretik komunikazioa@ueu.eus helbidera idaztea eskatu dute antolatzaileek.



Orozek oleo-pintura tailerra emango du azaroaren 20an

S.H. Arrate Kultur Elkarteak hainbat ekimen antolatu ditu azarorako. Azaroaren 23ra arte Gipuzkoako Artisten Elkartearen erakusketa ikus daiteke Topalekun. Bestalde, Esteban Oroz artistak oleo-pinturako tailerra emango du azaroaren 20an, 18:00etan, Topalekun. Tailerrera izen-ematea zabalik dago (638284912 / arratekultu@gmail.com). Orozek koadro bat marrotuko du, eta amaieran zozketatu egingo dute, parte hartzen dutenen artean.



“Epaiketa arrotzari” euskaraz eta gazteleraz antzeztuko dute

S.H. Gaur (barixakua) antzerki-saio bikoitza hartuko du Coliseo antzokiak: 19:00etan *Epaiketa arrotzari* taularatuko dute, euskaraz, eta 21:30ean *Juicio al extranjero*, gazteleraz. Albert Camusen *Arrotza* eleberriko protagonistaren aurkako epaiketa itxuratuko duen lan honetan ikusleek ere hartuko dute parte, bete-betean, ikusleak epaiketa-gela bihurtutako aretoan sartuko dira eta. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoren Laguna txartelarekin).

Doako bisita gidatuak egingo dira bihar Armagintzaren Museoa

S.H. Hilero bezala, Eibarko Armagintzaren Museoa doako bisita gidatuak antolatu ditu bere erakusketa iraunkorra ezagutzeko. Horrela, bihar (azaroak 15) bi saio eskainiko dira: bata 17:00etan (euskaraz) eta bestea 18:30ean (gasteleraz). Bisita bakoitzak 90 minutuko iraupena dauka, eta gehienez 20 lagun onartuko dira. Izena emateko telefonoz deitu (943 708446) edo museoa@eibar.eus helbidera idatzi..

Klown tailerra hasiko da Ipuruan

S.H. Helduentzako klown tailerra ematen hasiko dira azaroaren 29an, Ipuruako Merkatu Plazan. Hastapen-mailako tailerra izango da, eta hila-bete bakoitzeko azken zapatuan eskainiko dute, 10:00etatik 13:00etara.

Izena emateko edo informazioa eskatzeko 649 59 27 97 telefonora deitu daiteke (Txeli).



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

4	1			2		9		7
5			4	6				
							4	2
	4	3		1	5			
			3	8		2	7	
3	6							
				3	1			6
8		9		5			2	1

SUDOKUA


1	2	3	4	5	6	7	8
9	6	7	1	2	3	4	5
8	5	4	2	7	1	3	6
7	1	3	6	2	4	5	8
6	8	9	5	1	7	4	3
5	3	1	7	4	2	8	6
4	2	8	6	9	3	5	7
3	7	9	8	6	5	1	4
2	4	5	3	8	7	9	6

9	3	8	1	5	4	6	7	2
4	2	5	3	6	7	1	8	9
7	6	1	8	9	2	4	5	3
2	5	7	6	4	9	1	3	8
6	1	9	2	3	8	5	4	7
3	8	4	7	1	5	9	2	6
8	6	5	2	3	7	1	4	9
1	4	2	9	7	6	3	8	5
5	7	3	4	8	1	2	6	9

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

5		3		8	1			
		2	9					
8	6			3				
	4						2	
	9	2	3	8	5			
5						1		
			8			4		3
				7	8			
		1	5		6			2

Denborapasan lotu behar da giltz bakoitza bere sarraillarekin



Azaroak 14 / Azaroak 20

BARIXAKUA 14

LIBURU AZOKA

11:00/14:00ra eta

17:00/20:30 Eibarko Liburu Azoka. Literaturako azken nobedadeak, deskontuarekin. Untzaga.

30. URTEURRENA

17:00 Umeentzako txokolate-jana. 17:30 Magia ikuskizuna, Lekim Animazioak taldekoen eskutik. Beheko Tokia adinekoen zentroa.

MODA-DESFILEA

18:00 Belaunaldien arteko moda desfilea. Sarrera libre. Untzaga gizarte zentroa.

AURKEZPEN-HITZALDIA

18:30 "Israel hemen ere hasten da. Sionismoarekin harremanak Euskal Herrian" liburuxkaren aurkezpen-hitzaldia. Arrate Kultur Elkartea.

ANTZERKIA

19:00 "Epaiketa arrotzari" (euskaraz) eta 21:30 "Juicio al extranjero" (gaztelera). 10 euro (7 euro Colisearen Laguna txartelarekin). Coliseo.

ZAPATUA 15

LIBURU AZOKA

11:00/14:00ra eta

17:00/20:30 Eibarko Liburu Azoka. Untzaga.

GASTRONOMIA

0:00/12:00 XI. Eskolarteko Bakailao Lehiaketa. 12:00/14:00 Bacalaos Alcora Pintxo VII. Lehiaketa. Errebal Plaza.

GASTRONOMIA

12:00 Zurrurutun-lehiaketa. Untzaga gizarte zentroa.

BISITA GIDATUA

17:00 Doako bisita gidatua, Museoko erakusketak iraunkorra ezagutzeko. Euskaraz (18:30ean gaztelera). Aurretik izena eman behar da. Armagintzaren Museoa.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipuruia kiroldegia

LASTERKETA

18:00/19:00 Asier Cuevas Herri Lasterketaren XII. edizioa. Irteera eta helmuga: Toribio Etxebarria kalea.

USTEKABEREN

25. URTEURRENA

18:00 Kalejira berezia, arratsaldean hasi eta gaueraino, Ustekabe Txarangaren eskutik.

MUSIKA

19:30 Heavy Metal Festa, Urkari taldearen eskutik. Sarrera libre. Koskor taberna.

OPERA

19:45 Giacomo Pucciniren "Tosca" (ROH 2025) operaren proiektzioa. 9 euro (5,50 Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

DOMEKA 16

ZUHAITZ-LANDAKETA

10:00 Parte-hartzaileak Arrateko frontoian elkartuko dira, handik denak elkarrekin zuhaitzak landatzera joateko. Antolatzailea: Eibarko Baso Biziak.

LIBURU AZOKA

11:00/14:00ra eta

17:00/20:30 Eibarko Liburu Azoka. Untzaga.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipuruia kiroldegia.

MARTITZENA 18

MAHAI-INGURUA

18:30 "Belaunaldi berri euskaldunak eta teknologia". Parte-hartzaileak: Lorea Argarate Zubia (Teknogoia), Leire Lison Nicuesa (Badalabeko ikertzailea) eta Lander Arretxea (Hiru Damatzoko kidea). Bide-rtzailea: Ainhoa Latatu Nuñez (UEU-ren goi ikastegiko zuzendaria). Antolatzaileak: Eibarren Akebai eta Eibarko Udala, UEU-ren laguntzarekin. Sarrera libre. Markeskoa jauregia.

ENTSEGUA

18:30/19:30 Koralito abesbatza. Ipuruako Merkatu Plaza.

HITZALDI-INFORMATIBOA

19:30 Ipuruako merkatu pareko plazarako Udalak duen proiektuari eta horren kontra aurkeztuko den mozioari buruzkoa, Ipuruako Merkatu Plaza Elkargu-nea elkartearen eskutik. Ipuruako Merkatu Plaza.

EGUAZTENA 19

HITZALDIA

19:00 "La bicicleta, una maquina movi, veloz y bella", Iñaki Uriarte arkitekturen eskutik (gaztelera). Sarre- ra libre. Portalea (areto nagusia).

EGUENA 20

HITZALDIA

10:00 "Cuidados paliativos en la OSI Debarrena". Antolatzailea: Ikasten. Sarrera libre. Portalea.

TAILERRA

18:00 Oleo tailerra, Esteban Orozen eskutik. Arrate Kultur Elkartea.

HITZALDIA

18:30 "Ikasgeletan indarkeria prebenitza eta atzema- tea", Iñaki Zubizarretaren eskutik. Sarrera libre, 18 urtetik gorakoentzat. Antolatzailea: Eibar BHI. Eibar BHI-ko Jardinetako aretoa.

HITZALDIA

19:00 Alkoholiko Anoni- moak elkartearen 50. urteu- rrenaren harira. Sarrera libre. Portalea.

ERAKUSKETAK

Azaroaren 1etik 30era

"Indarkeria matxistaren aurkako memoria-lekuak", Mugarik Gabe-ren eskutik. ... Andretxea.

Azaroaren 16ra arte

Indalecio Ojanguren XXXVIII. Argazki Lehiaketa- ko lanak. Portalea.

Azaroaren 16ra arte

Euskal Akueelarien Elkar- tearen (AVA-EAE) nazioar- teko akuarela erakusketa. Portalea.

Azaroaren 23ra arte

"Gipuzkoako Artisten Elkar- tea". Topaleku.

ZINEA COLISEO



“Ahora me ves 3”
AZPIJOKOA
2025 /AAEE/112’
Zuzendaria: Ruben Fleischer
Aktoreak: Jesse Eisenberg,
Woody Harrelson, Dave Franco,
Isla Fisher.
Krimena. Magia.

1 ARETOA

- **15ean**: 17:00, 19:45
- **16an**: 17:00

ANTZOKIA

- **15ean**: 22:30
- **16an**: 20:00
- **17an**: 19:30



“Siempre es invierno”
DRAMA. ERROMANTZEA.
2025 /Espainia /117’
Zuzendaria: David Trueba
Aktoreak: David Verdaguer,
Amaia Salamanca, Isabelle
Renauld.
Drama erromantikoa.

1 ARETOA

- **15ean**: 22:30
- **16an**: 20:00
- **17an**: 19:30



“Bugonia”
KOMEDIA. ZIENTZIA-FIKZIOA.
2025 /Irlanda /118’
Zuzendaria: Yorgos Lanthimos
Aktoreak: Emma Stone, Jesse
Plemons, Aidan Delbis, Stavros
Halkias.
Estralurtarrak. Remake.

2 ARETOA

- **15ean**: 17:00, 19:45, 22:30
- **16an**: 17:00, 20:00
- **17an**: 19:30



“El mago de Ciudad Esmeralda”
FANTASIA. ABENTURA
2025 /Errusia /120’
Zuzendaria: Igor Voloshin
Aktoreak: Svetlana
Khodchenkova, Sofya Lebedeva,
Yuri Kolokolnikov.
Familia zinema.

ANTZOKIA

- **15ean**: 17:00
- **16an**: 17:00



**JOSE MARIA
LARREATEGI
“TXOPEN”**

7. URTEURRENA
2018/11/03



**JERONIMA
MANDIOLA
BILBAO**

8. URTEURRENA
2017/07/13



**“Zuek biok eskainitako
maitasunarekin
gelditzen gara.
Beti gogoan
izango zaituztegu”**
- ETXEOAK -

**Manuel Martin
Izaguirre Salegui**

(Martina Barrueta beñaren alarguna)

2025/11/11

Bihotzez eskerrak une
latz hauetan gurekin
egon zareten guztioi.

- ETXEOAK -



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **KATRIN!**, gure etxeko printzesa! 9 urte bete zenduazten astelehenian. Jarraitu zaran bezalakua izaten! Asko maite zaittugu danok!"



Zorionak **ETXAHUN** Magunazelaia! Astelehenean 8 urte bete zenduazten eta. Musu haundixa etxekuen partez eta jarraitu hain alaia izaten.



Zorionak **PAULE!** Gaur lau urte betetzen dittuzu eta. Musu eta besarkada bat aitzitxa eta amamaren partez.



Zorionak **MAIALEN!** Atzo 5 urte bete zenduazten eta! Segi gure bizitza alaitzen! Musu potolo bat famelixaren eta, batez be, Manex eta Koran partez.



Zorionak **JULEN!** Domekan, hilak 16, 4 urte eder betetzen dozuz eta! Jarraitu horren alai eta jator! Musu erraldi bat etxekuen partez.



Zorionak **ENRIQUE!** 100 urte, ez da makala!!! Mendea gustora ospatu zenduan maite dittuzenekin. Besarkada haundixa etxekuen eta lagunuen patez.



Jose De la Prieta Aparicio

2025/11/11


MILESKER une latz hauetan gurekin egon zareten guztioi.

- ETXEKOAK -





TANATORIO EIBAR



TANATORIO FUNERARIO REGOIAN

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Oraola, 27	Elgoibar: Kixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bibo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
• Pisia salgai, guztiz hornitua erdigunean. Txaltxa Zelai inguruan. 631579498.
3. LOKALAK
3.2. Errentan
• Taberna eskualdatzen da. Lokala alokagai, erosketarako aukerarekin. San Kristobalen. 943821329.
4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako, nagusiak eta umeak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako ere. 641781229.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gabaz, 21:00etatik 09:00etara, etxe edota ospitalean. 613287661.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. 632642320.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak, umeak eta txakurrak zaintzeko, zein tabernetan lan egiteko. 632119320.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko, baita txakur ileapaintzaile bezala ere. 624830282.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, egunez edo gausez. 643768260
• Emakumea eskaintzen da zaintza lanetarako, garbiketa lanetarako edota sukalde laguntzaile bezala aritzeko. 604121670.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa

lanetarako edota ostalaritzan sukaldean aritzeko. 600073104.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako, asteburuetan. 624533959.
• Emakumea eskaintzen da ostalaritzan zerbitzari edota sukalde laguntzaile aritzeko, zein nagusiak edo umeak zaintzeko. 631228039.
• Emakumea eskaintzen da ume eta nagusiak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako ere. Erabateko prestutasuna. 631483249.
• Mutila eskaintzen da asteburuetan tabernetan lan egiteko. 682213356. Iker.
• Garbiketa lana edo nagusien zaintza egiteko prest nago. Arratsaldetan. 620757528. Arrate.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Garbiketarako ziurtagiri eta ziurtagiri sozio-sanitarioarekin. 643517094.
• Emakumea eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 642135146.
• Tituludun erizaina eskaintzen da pazienteak zaintzeko, mugikortasun arazoak izan edo ez. Baita umeak zaintzeko ere. 641834341.
• Mekanika ingeniaria eskaintzen da edozein motatako lanak burutzeko: igeltseritza, iturgintza, elektrizitatea, pintura... 641838914.
• Emakumea eskaintzen da nagusien zaintza eta laguntzarako, ziurtagiri soziosanitarioarekin. Arratsaldez, gausez edota asteburuetan. 661063891.

4.2. Langile bila
• Sukaldaria behar da Eibarko taberna batean, barran zerbitzatzeko ezagutzarekin. Informazio gehiago Orbela tabernan. 660460295.
• Depor tabernan kamareroa/zerbitzaria behar da barixaku-astelehena bitartean lan egiteko. 665726146.
• Eibarko erdiguneko tabernan, mahaietan aritzeko zerbitzari bila gabilta. 604203896.
5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.
6. DENETARIK
6.1. Salgai
• Oso gutxi erabilitako sehaska zuri lakatua salgai, koltxoi eta guzti. 679184531.
6.3. Galdu/Aurkitu
• Gabonetako loteria aurkitu nuen kalean zapatuan (urriak 25). 653724549.

Negozio bat
irekitzea os
zaila da. Ixtea,
oso erraza.

Errekatxu Berrin,
arauak aldatu
ditugu..

Errekatxu Berri da zure
negozioaren giltza; zatoz.
Lokalak eta **garajeak** salgai,
estreinatzeko prest.



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir

Kia Sportage berria.

3 urteko mantentze-lanak barne.

**XXI TXISTORRA EGUNA
AZAROAK 22 UNTZAGAN
PARTE HARTU ZOZKETAN ETA
ESKURATU ZURE OPARIA!**



Movement that inspires

Hilean

150€-tik aurrera*

Sarrera: 11.307,74 €

Azken kuota: 18.059,15 €

Zure erritmoan bizitzea ere kirola delako. Egunerokotasunean dago, mugitzen zaren energian eta harago joatera bultzatzen zaituen erabakimenean. Orain, Kia Sportage berriak 3 urteko mantentze-lanak barne hartzen ditu, nahi duzun horretan guztian laguntzeko. **Zure sport modua, zure Sportage.**



Apalategi, 1 EIBAR

943 70 70 33

gruponaiacar.com

WLTP CO2 isurketa konbinatuen emisioak (g/km): 126-146. WLTP kontsumo konbinatua (l/100km): 5,6-7,4.* Finantzaketaren adibidea: Kia Sportage 1.6 T-GDI Concept 150CV 4X2. PPG: 30.590 €. Finantzatutako prezioa: 29.499,54 € (zergak, garraioa, sustapen ekintzak, erabilifako ibilgailu bat entregatzeagatik deskontua eta 3 urteko-mantentze lanak barne). Sarrera: 11.307,74 €. Eskatutako zenbatekoa: 18.191,80 €. Finantzatutako zenbatekoa: 18.910,38 € (% 3,5eko formalizazio-komisioa barne: 718,58 €). 150 €-ko 35 kuota eta 18.059,15 €-ko azken kuota. TIN: % 7,95 UTB: % 9,86. Interesak, guztira: 4.398,77 €. Kredituaren kostua, guztira: 5.117,35 €. Zordundutako zenbatekoa, guztira: 23.309,15 €. Epekako prezioa guztira: 34.616,89 €. Amortizazio-sistema frantsesa. Banco Cetelem SAUrekin finantzatu. 2025/11/30era artez

